



## Hegan egiteko ukendua

### Osagaiak

- ♣ Lau larrosa-kimu, ilbeteko gauaren ondorengo ihintzaz bustiak.
- ♣ 2 euli hego
- ♣ Fenix txoriaren hegaldaren azkeneko luma, errauts bihurtua.
- ♣ Apoaren birika usteldua
- ♣ 2 mililitro txerri-puzker
- ♣ Ahuntz koipea

Ilbeteko gauaren ostean lau larrosa-kimu hartuko dira. Mozketa bitartean honelako bertsoa abestu behar da ahapeka:

larros larrosa,  
arantzez ezazu osa  
oraintxe nire bihotza

Hurrengo goizean sukaldeko leihoan ezti potetxo bat jarri beharko da euli potoloak etor daitezen. Hauetako bati bi hego kendu beharko zaizkio eta kimuen gaineko ihintzean egosi ordu laurden batez.

Ondoren, Fenix txoriaren luma erraustua nahasiko da, ongi irabiatuz (erlojuaren orratzen kontrako norantzan).

Apoaren birika ustela ongi murtxikatu beharko duzu eta hori egin bitartean ezpain ertzetik eroriko zaizkizun larde tantak aurreko nahasketari erantsi. Hori guztia txerri-puzkerrak gordetzen dituzun potean sartu behako duzu. Baina kontuz! Ez daitezela puzkerrak kanpora atera.

Nahasketari, ilberriko gauean hamahirugarren kanpai-hotsa entzuten duzunean, ahuntz koipea gehitu eta biziki irabiatu, baina oraingoan hegoaldeetik iparraldera.

Hurrengo ilbeterako izanen duzu prest ukendua.

### *Ukendua nola erabili*

Biluzik manda-euliren esnetan bainatu ordu erdiz. Ondoren, eta lehortu gabe, ukendua igurtzi gorputz atal guztietatik. Tentuz ibili, atal nimiño bat igurtzi gabe geldituz gero, estropozuka ibiliko zara lur eta zeru artean.

Ukendua ongi emana duzula iruditzen zaizunean, honelako hitzak oihukatu beharko dizkiozu ilargiari:

*Hatson kiratsa*

*Haize guztien norantza*

*Har nazan arranoen isatsak*

*Hegan dezadan Ilazki amaren dantzan.*

(*"Sorginen eta aztien liburu beltza" liburutik hartua. 3. atala. 66. or*)